

Nafarroako Esaera Zaharrak. Lekaroz, Gartzain, Oronoz.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Lekaroz, Gartzain, Oronoz.

- 1966 *Ago(ao) bete ortzekin gelditu da.*
Zuen guzia galdu ta gelditu da.
- 1967 *Aire ona etxea goratzeko!*
Dabiltzan bezela, ez dute etxea aberastuko.
- 1968 *Aise izana, aise galtzen.*
Bestek emana, nork berak irabazia baño aisago galtzera uzten.
- 1969 *Akerraren adarra baño gogorragoa da ori.*
Zital utsa da ori.
- 1970 *Alozak egiñik dauzke gizenez.*
Gizenkiz lepondoan bilguñak, pleguak egin zaizkio.
- 1971 *Ameka etxe, ameka labe, ogei ta bi zetabe: bata bertiaz beartu gabe.*
Aniz erriaz esaten da ori. Erri txikia, baño etxealde onak izaki nonbait.
- 1973 *Antxe erran diot: Aizak zurie, aizak gorrie!*
Esateko guziak esan ditiot.
- 1974 *Arraio pozoindue!*
Orren aserre, gizona!
- 1975 *Arbol apalian aise egiten da egurre.*
Aulduari, eri gaxoari, soildu dutenari aise egiten zaio farra ta txarkeria. Baña ori ez da kristau legea.
- 1976 *Ardi-larruek banaka, axuri-larruek kargaka.*
Ori esan omen zion aittun gogortuak farra egiten zion illobari.
- 1977 *Ari zuen uria, yautsi ala.*
Ezin geiago.
- 1979 *Arpatuko 'uk ori zangotik.*
Gaizkillea arin joaten igesi, eta nork arrapatuko?
- 1980 *Arto-opilla egin-berrian guri.*

- 1981 *Ateratzeko tinke egon nintzen.*
Bai atera ez atera egon nintzen.
- 1982 *Atiak aiñe maratil ba ttik (dizkit) orrek.*
Beti aitzakien bat, esana ez egiteko.
- 1983 *Ats (arrats) gorri, biar eguraldi.*
- 1984 *Atsa izaki gure bizia!*
Atsa edo arnasa bezin ariña, galkorra, iragankorra.
- 1985 *Atsaputzak baño fundamentu geiago ez du orrek.*
Atsaputza: beste nonbait astaputza, otsaputza esaten da.
- 1986 *Au, au lekeda!*
Bai aspergarria dela auxe! Lekeda = paperak eta beste gauzak itsasteko goma.
Orren itsaskorra da gizon ori.
- 1987 *Aundi nai, eta galtza zar.*
Beartsu izan ta aundi itxura egiten duena.
- 1988 *Aurpegiek galdu dituzte.*
Elkarrekin aserretu dire, eta gogorki ala ere.
- 1989 *Au tekela tzarra!*
Au euli aspergarria, giñetik ezin kendua.
- 1990 *Aurten ure xur dugu, xur.*
Ura exkax, ez du euririk egin.
- 1991 *Auts-urte, arto-urte.*
Auts esaten diote artoaren aiñoari.
- 1992 *A zer gaztain-mustrike daukezun!*
- 1993 *Azeriek ile zarra uzten du, baña azture zarra ez.*
Kristauak ere gaztetako oitura txarrak nekez uzten zartzearekin.
- 1994 *Aztaka aztaka dabil.*
Aztamuka, itsuak bezela dabil, eskuak aurrera luzatuz.
- 1995 *Ba, ez du mingañen makurrik.*
Mingaña lasa du, ez du trabarik.
- 1996 *Bai, ez du mingainpian aririk.*
Solaserako, izketarako gaitza da; gauzak argi esaten ditu.

- 1997** *Bart a ze perretxikue arrapatu zinuen!*
Zer mozkorra.
- 1998** *Baserritar kalezale, etxe-ondatzale.*
- 1999** *Bata bertzeakin, tripota ertzeakin.*
Beti elkarrekin dabiltzenaz esaten da.
- 2000** *Batek ala, bertzeak ola: baño gaztanbera loiez.*
Eztabaida ortan ez da ur garbirik ateratzen.
- 2001** *Bazkoz illargi-zar, Austez illargi-berri.*
Auste = Austerre eguna, garizumaren asiera.
- 2002** *Bearkunida izaki.*
Bear gorrian arkitu.
- 2003** *Beliak, bera bezelako umiak.*
Gurasoak nolako, umeak alako.
- 2004** *Begiko zikiñe baño geiago ez dute ikusi nai gizon ori.*
- 2005** *Bereak bere, bertzeenak erdiz.*
Ala ere! zenbaitzuk besteena ere osorik berentzat nai dute.
- 2006** *Bereak eta asto zarrarenak erran ditio.*
Merezi zuen guzia esan dio.
- 2007** *Beti segurotik yokatzen da ori.*
Galtzeko arriskua duten egitekoetan ez sartzen.
- 2008** *Biotza bete zitzaidan gañez egiteraño.*
Biotza bete = biotza ukitu, samurtu, beraxtu.
- 2009** *Biziak, iltzia zor du.*
Adan-en ume guziok dugu zor ori.
- 2010** *Bi yaiek (jaiak) doakala eldu dire.*
Doakala (edo dagokala) bata bestearen onditik.
- 2011** *Dama-urte, arto urte.*
"Dama" Deitzen dute artondo txuria.
- 2012** *Dezakenak dezake puzkerra gerrenian sartu.*
Al duenak egin dezala diozun ori.

- 2013** *Duenak duenari: errege Salomon-ek eman emen zuen testamentu ori.*
Aberats askok lendik aberats direnei uzten ondasuna, beartsu gosetiez atzendurik.
- 2014** *Elarretik atera ta sasian sartu.*
Gaitz batetik atera ta aundiagoan sartu.
- 2015** *Elezuritzen ari dire.*
Kontuak garbitzen.
- 2016** *Eliza urbil, ta aldarea urrun.*
Eliza urbil izan, eta artara gutxitan joan. Oihenart-ek: "Elizaren hurranena, aldarearen urrunena" (131).
- 2018** *Elur-melur: ez diat ire beldur, badiat etxean arto eta egur.*
- 2019** *Elurre, zurie dela(r)ik, beltza da.*
Gorriek eta beltzak ikus-araten ditu.
- 2020** *Erbie pasatu ta lazoa paratu (jarri).*
Mugona igarotzera utzi ta gero ezin arrapatu berriz.
- 2021** *Erraiok, erraiok begarrien egalera!*
Ari esatea ez du ongi artuko.
- 2022** *Errekiste aundiko gizona.*
Jendea bereganatzen dakien gizona. Errekiste = arrakasta. Beste edozein gauzez ere berdin: gauza orrek arrakasta aundia du = jendeak billatzen du, erosle asko baditu.
- 2023** *Errotazaiek zil du ebastea egunean agur (ahur) bat irin.*
Zil du = libre du; agur = ahur, arrabete, eskute.
- 2024** *Etxeko langille orrek, zer kiderra dauken eskuetan!*
-Non du kiderra? -Bera kider alferra.
- 2025** *Etxeko sua etxeko autsez estali.*
Etxeko kontuak ez atera kanpora.
- 2026** *Euria: au da indianorik oberena. Baztan-en ez da au bezalako amerikanorik sartu!*
Nork esan euriak zenbat ondasun ekartzen duen!
- 2027** *Ez auts eta ez izotz!*
Deusetako balio ez duenaz esana.

- 2028 *Ez kur-urte, sagu-urte.*
- 2029 *Ez naiz ni ere atzo goizeko bildotxa. Nik ere baditut urte batzuek.*
- 2030 *Ez urratu ta ez yosi.*
Ez atzera ta ez aurrera, beti bereartan.
- 2031 *Frantsa (frantzes) yanian boz (poz): yan ta mukizu.*
Jan ondoan ergel.
- 2032 *Gatza suen bezala, irakiten yarri da.*
Su ta gar yarri da.
- 2033 *Gaiztoz gaizto, nekez arkituko da asto gaizto(a)gorik.*
Astoaz bai, eta bai jende tzarraz ere esana.
- 2034 *Giltzaurrak urrunera bete betiak: ondora gan ta bat ere ez.*
- 2035 *Galtza bete ipurdi.*
Estutxo dabillega, bizitzekoa ezin atereaz
(no le llega la camisa al c...).
- 2037 *Goiz bazen, berandu bazen: garizume negu zen.*
- 2038 *Goiz gorri, aize edo uri: arrats gorri, biar eguraldi.*
- 2039 *I antxu intzeneko, ni ere bildotx bedere banindunen.*
Adin berdintsukoak gaitun biok.
- 2040 *Idiek nekatu, ta orgak erausi.*
Idiak ixillik eta gurdia karraxiz. Oiu egin bear lekera ixillik, eta ume edo mutil
lotsagabea espaka.
- 2041 *Iduriek idurie ar(ra)patzen.*
Bakoitza bere antzekoekin ibiltzen.
- 2042 *Il ta ondorian, zopak agora (ahora).*
"Il da gero, salda bero", beranduegi.
- 2043 *Iltzen denari ez, baña yaiotzen denari egin bear emen zaio nigarra.*
- 2044 *Iñestille gogorra da ori.*
Inestille = inesti-egille, ñestiak egiten dakiena. Ñestiak egin (Ultzaman istiak
egin) beste baten itxura ta ibillera ta mintzoa ta keiñuak egin, beste ark
bezelaxe.

- 2045 *Iñork ez dik ixila(ra)ziko lekeda ori.*
Nork ixillarazi itzontzi ori?
- 2046 *Ire oñazia eta auntzen gauerdiko eztula, biak bat.*
Min txikia, ta aiots aundia.
- 2047 *Iri erraten diat, gorrie: a(d)i dezan zuriek.*
Norbaiti zuzen ezin esan dakiokena, aren aurrean beste bati esan.
- 2048 *Itxurez gaztanbera, lurrez fundamentu.*
Itxuraz bikain, izatez uts; itxuraz osasun onekoa, ta deusetako balio ez.
- 2049 *Yainkoak yoko al dio biotzian!*
- 2050 *Kanpoan santu, ta etxian deabru.*
- 2051 *Kanpoan bildots, etxian otso.*
- 2052 *Kantari prestua, baño boza karrakaildua.*
Boza laztua.
- 2053 *Katurik ikusi nai ez duenak, sagu arratoiak arrapa ditxala berak.*
Ditxala = Ditzala.
- 2054 *Kux-kuxian zagon, eta txakurrak eldu zion.*
Izkutuka, zelatan, zer ikusi, zer aditu zebillen, eta txakurra ez zagon lo.
- 2055 *Kuku: san Pedrotan mutu.*
- 2056 *Larruain (larruaren) betean aunturik dago.*
Puzturik, anpaturik.
- 2057 *Maiatza, otzak eta goseak ille.*
Ola iltzen diren jendeak ere izaki.
- 2058 *Maipetik xuxtu (txistu, fistu).*
Ori esaten zaio otordura berandu datorrenari, maipera fistu egiñez.
- 2059 *Maritzar adiñe Yoanes galtza-zar beti bada.*
- 2060 *Martin banbin, errege ta sorgin: tipula ta gatz, Martin ipurdilatz.*
- 2061 *Martxoan dela Bazko? urte artan arto ta ogi franko.*
- 2062 *Me-egunian gizen yaten duena, zerurako ez da ona.*

Me-eguna = bijili-eguna.

- 2063** *Miñek bere gorena egin du.*
Miñak, gaitzak onera eman du, asi da obekitzen.
- 2064** *Nere onak eta ain onak egin di(r)e.*
Nere zorionak iges egin du, lekutu da.
- 2065** *Nolako toxa, alako pipa.*
"Nolako Perutxo, alako Maritxo".
- 2066** *Nondik aztarnatu dute ori?*
Gauzarik estalienak ere agertzen. Zer bidez?
- 2067** *Non illundu, an ostatu!*
Noiz etxeratu ez dakienaz esaten da.
- 2068** *Non duzu guardasola?*
-Etxera erdixtian (iristean) aterako dut kanpora.
- 2070** *Obe da bein gorri, ezen ez beti ori.*
Obe da bein zorrotz egin, beti erdizkal baño.
- 2071** *Odola ez zaio burura iyeinen (iganen, igoko).*
Ez da asko estutuko, lasaia da.
- 2072** *Ogi-yorran ari nai ez duenak, olo-yorra arrapatzen du.*
Ordu erdiko lana egin nai ez duenari, illabete osokoa sortzen aldi batzuetan.
- 2074** *Oñaze galantak tut (ditut), eta goxaki apur bet ez!*
- 2075** *Or dabile kilinki-malanka.*
Makur samar dabil osasunez edo.
- 2076** *Ori duk amorraiei igerika erakutsi naia.*
Irakasle guzien irakasle egiten bere burua. Oihenart-ek: "Ahateari igerikan erakastea" (12).
- 2077** *Ori mullo utzirik.*
Ori alde bat urzirik.
- 2078** *Ori mullo utziko du.*
Ori arras aizatuko du.
- 2079** *Or perma!*

Ortxe ikusi! or konpon, Marianton! ortxe ekin!

- 2080** *Orratzak baño ariak luziago bear du.*
Amak, irakasleak eta, menpekoak baño ezaguera ta eramapen (pazientzi) geiago bear. Oihenart-ek ere ola (703).
- 2081** *Orrek gaztañek atrako ttik (dizkik) eltzetik.*
Orrek lanak emango ditu.
- 2083** *Peto gogorra eman diote.*
Ustegabeko kalte aundia egin diote.
- 2084** *Sabai-sari aundie du.*
Baztan-en maixtarrak, lur landuak nagusiarekin erdizka baditu ere, bear luken belarra erostea, garesti eldu zaio; auxe da sabai-saria.
- 2085** *Sagar onak erreliste ona.*
Errekiste = arrakasta; gauza onak erosle asko izaten, jendea orren billa ibiltzen.
- 2086** *Sapa gaitze dago.*
Sapa bero, sargori, bero itogarria.
- 2087** *San Gregorio, kazkaabarra agoan dago.*
San Gregorio martxoaren 12'an (oraintsu arte, orain beste egun batera aldatu dute).
- 2088** *Tutulue dantzatuko dik orrek.*
Neskatxa orreri ez dio nork-nai farra egingo.
- 2089** *Txerrizaiñe sukaldeko zokoan, arto-puske kolkoan.*
Negu txarrak bai txerrizaiña bai txerriak zokoratzen.
- 2090** *Xuri ta beltzak aitu tu(ditu).*
Gogorrek esan dizkiote.
- 2091** *Xurkia alde dute.*
Xurkia (ixurkia), urak beren alde dauzkate, egitekoak ongi doazkie.
- 2092** *Ubaldiak (ibaiak) goitik ez du ekartzen zakarrak bertzerik.*
Ibaia azitzen delarik, zakarrak ekartzen dituen bezela, Iruñe aldetik (goitik) Baztan-a oitura tzarrak besterik ez dela etortzen (ala esan zidaten Berroeta-n).
- 2093** *Ur geldiek saltorik aundienak.*
Olaxe, den onenak ere, txarkeria aundien bat egiten zaionean, okerrik aundiena egin lezake.

- 2094 *Urrungoa urrez, urbilletik lurrez.*
Urrungo ezkillék burrunbe aundie.
- 2095 *Usuak gan (yoan), ta sariak eda.*
Beranduegi... Axular-ek ere badakar esaera.
- 2097 *Zilo guzien petatxuek ba'itu orrek.*
Zuzen ala makur, guziei erantzuten, aitzekia beti aoan.
- 2098 *Zirritutik kirikeka dago.*
Zelatan, ikusmiran.
- 2099 *Zure galtza-kordak izain du korapillo ori.*
Utsarte ori ez ote da zerorrena?
- 2100 *Ni, ama xuri-xuriz beztitzen kontuz. Ez da yendea, ez da azinda.*
Asmakizuna. Zer Ote da? Maindirea? esnea?
- 2101 *Luze ta miar, mundu guzian biar (bear).*
Asmakizuna. Zer ote da? Aria (haria).
- 2102 *Arbolen ieten (igaten, igotzen), eta urian ezin pasa.*
Asmakizuna. Zer ote da? Txinurria.
- 2103 *Makilla baten inguruan lau gizon lasterka, eta elkar ezin arrapatu.*
Asmakizuna. Zer ote da? Arilkaia (erderaz la devanadera).
- 2104 *Dama eder leioko, errengila-arrengila urritzapeko.*
Asmakizuna. Zer ote da? Ezkerteá (corregüela).
- 2105 *Kiri kiri karakola, paretan gora.*
Asmakizuna. Zer ote da? Untzostoa.
- 2490 *Aite luzia, ama latza, ta umia beltza. Zer da?*
Asmakizuna. Gaztaña.
- 2491 *Uraren gañian zubie, zubiaren gañian gizon buruzurie. Zer da?*
Asmakizuna. Gazna (Gazta).
- 2492 *Txuri-txuri laxko, pentsatzeko gaixto. Zer da?*
Asmakizuna. Gatza.
- 2493 *Zilo ta zilo, Martin putzilo. Zer da?*

Asmakizuna. Padera, gaztañak erretzeko danboliña.

2494 *Zulo ta zulo, ta petatxurik ez. Zer da?*
Asmakizuna. Laratza.

2495 *Auntza larrera joatean, marrakaz zegoan antxumeari otsoak esan omen zion:*
Ume, ume, umetxo,

abarrian ostotxo,
errapian esnetxo,
ideki zazu atakatxo.

Gogora ekarri Grim anaien ipui ura: Zazpi antxumeak eta otsoa. Ortik esaera au.

2495 *Loxintxari aundiak, gaiztakeri aundia.*

2496 *Etxeko lapurra, txarren-txarrena.*

2497 *Txerri txikiari ez burlarik egin.*
(Andresa Agirre'k emanak.)

2498 *Gaztetan il nai ez, ta zartu-ta gauz onik ez.*

2499 *Izana bate(r)a, ta egittek beste(r)a.*
Lotsagarri ala izatea.